

2024ko Artzai Egunaren programa



Irakurketa Errazean

Nafarroako interes turistikoko festa




Zer da Artzai Eguna?

Artzainei eskainitako jaia da.
Aurten Artzai Egunak
56 urte betezen ditu.

Non da Artzai Eguna?

Uharte Arakilen.
Arakil haranean dagoen
herri bat da.



Noiz da Artzai Eguna?

2024ko abuztuaren 25ean,
igandean.



Reyno de
Navarra



Nafarroako
Erresuma

www.visitnavarra.es

Robeto Jaca Navaroren agurra eta ongietorria

Roberto Aralar Mendi Elkarteko lehendakaria da.

Denbora aurrera doa
eta berriz ere, Artzai Eguna ospatzen dugu.

Aurten ere, abeltzainek beren lana egiten dute,
jaten ematen digute
eta larreak zaintzen dizkigute.

Duela milaka urtetik hona
abeltzainek egunero egiten duten ahaleginari esker
gure landa paisaia zaintzen dute
eta kalitatezko elikagaiak ekoizten dituzte,

Nahiz eta ordutik denbora asko pasatu den,
abeltzainak oso garrantzitsuak dira oraindik ere.
Gure gizartearentzat haien lana beharrezkoa da
jaten ditugun elikagaiak ekoizten dituztelako,
gure bailara zaintzen dutelako
eta herriak bizirik mantentzen dituztelako.

Imajinatu gure basoen gainean
zeru urdin bat irudikatzen dela,
ganadua mendiko belardietan bazkaltzen dutela
eta haize leun batek ardien artilea mugitzen dutela.
Hau errealitatea izan dadin
gure ingurua zaindu behar dugu.
Horrela, ondorengo belaunaldiek
disfrutatu ahal izango dute.

Arduratsuak izan behar dugu.
Ongi etorriak Artzai Egunera.





Artzai Egunaren programa 2024eko abuztuak 25

Goizean

Goizeko 10etan

- **Irekiera ekitaldia.**
- **Epaimahaiaren osaketa,** hau da, lehiaketa ezberdinen epaimahaiaren pertsonak aurkeztuko dira.



10 eta erdietatik
eguerdiko ordu 1etara

- Nafarroako **ardi latxen erakusketa** eta **lehiaketa** San Juan Plazan.
- Latxa arrazako **ardien estatuko lehiaketa** San Juan Plazan.



10 eta erdietatik
eguerdiko 1 eta erdietara

- Nafarroako ardi latxen esne gordinarekin egindako **gazta-lehiaketa** elizako atrioan.
- **Gazta feria eta artisautza feria** Felipe Gorriti Kalean eta San Juan Plazan.



11etatik
eguerdiko 1etara

Ardi-moztaileen txapelketa

estali gabeko pilotalekuan.
Ardi-moztaileak ardiari artilea kentzen dieten
pertsonak dira.



11etatik
eguerdiko 2etara

Artzain txakurren erakusketa

San Juan Plazan.



11 eta erdietan

Artaldea herritik pasako da.



12ak laurden gutxitan

Ardiki gisatuaren dastaketa

Del Rio kaleko 22garren zenbakian
Mendinueta harategiaren aurrean dagoena.
Erreka Kaleko 22. zenbakian.

Ardi gazta freskoa dastatzeko aukera

Del Rio kalean,
elizaren aurrean egongo da.



Eguerdiko 1etan

Lanbide honetan hasten diren
artzain gazteei **omenaldia**
elizako atrioan.



**Eguerdiko
1 eta erdietan**

- Lehiaketen **sari banaketa** elizako atrioan.
- Gazta irabazlearen **enkantea** elizako atrioan.
Honek esan nahi du nahi duenak gaztarengatik zenbat ordaindu nahi duen esango duela eta diru gehien eskaintzen duen pertsonak gazta eramango duela.



**Eguerdiko
2 eta erdietan**

Herri-bazkaria

estalitako pilotalekuan.

Bazkariak **26 euro balio du helduentzat eta 14 euro haurrentzat** eta **sarrerak** Aralar Mendi Elkartean egongo den informazio puntuan **erosi behar dira**.



Arratsaldean

Arratsaldeko 5etan

Nafarroako artzain-txakurren txapelketa

Uharte Arakileko Gainbera larrean.

Lehiaketa hau duela 56 urte egiten dela.

Txakur irabazleak Oñatiko eta Euskal Herriko txapelketa internazionalera pasako dira.



Uharte Arakileko mapa

Mapa honetan ekintza bakoitza non izango den ikus dezakezu.



1. Gazta lehiaketa.
2. Gazta salmenta.
3. Eskuz egindako gazta.
4. Ardi-moztaileen txapelketa.
5. Artisau produktuen feria.
6. Eskulangintza postuak.
7. Ardiki gisatuaren eta ardi gaztaren lehiaketa eta dastaketa.
8. Ardi latxen lehiaketa.
9. Artzain txakurren lehiaketa.
10. Artzain txakur arrazen lehiaketa.



Informazio puntua

Aralar Mendi Elkartean.



Herri-bazkaria.



Komunak.



DYA.

Lehen sorospenak.

Informazio gehiago behar duzu?



Informazio gehiago eskuratzeko aukera hauen artean hautatu dezakezu:



Sartu jardueraren web orrialdean.

Klikatu esteka honetan www.artzaieguna.eus edo eskaneatu zure telefonoarekin QR kodigo hau.



www.artzaieguna.eus



Idatzi mezu elektronikoa bat info@artzaieguna.eus helbidera.



Joan Aralar Mendi Elkartearen dagoen informazio puntura.

Aralar Mendi Elkartea

Donibane Plazan dago, 3. zenbakian.



Deitu telefonoz Aralar Mendi elkartera. Telefono zenbakia 948 46 40 11 da.

Artzai Egunaren antolatzailea



Kolaboratzaileak



Nafarroako Erresuma
www.visitnavarra.es



Nafarroako Gobernua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren Departamentua
Gobierno de Navarra Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local



artzaieguna



artzaiegunauharterakil